

9. Pedro Novia Salcedo Castaños

1790-1865, bilbotarra

Komunikazioaren egilea: zenbait.

9.1. Bizitza



Pedro Novia de Salcedo Castaños bizkaitar politikari, hizkuntzalari, berritzaile eta idazlea izan zen.

Bilboko San Frantzisko ikastetxean egin zituen Filosofia ikasketak. 1820an, Probintziako diputatu izendatu zuten. Handik lau urtera, Bilboko Kontsulatuko buru izan zen, eta 1825ean eta 1846an Diputatu Nagusi, oinaztarren alderdiko ordezkari. Kargu hartan izan zen bitartean, foruak kentzeko saioren kontra jardun zuen suharki, eta haren jarrerari esker bertan behera gelditu ziren saio haiek guztiak.


Bere helburu nagusiak trenbideak, meatzaritza eta euskera izan ziren. 1829an suteei aurre egiteko araudi bat egin zuen. , Meatzaritzan beste araudi bat ere egin zuen, sektore hau hobeto ibiltzeko.

Iparraldeko trenari buruzko egin zuen proiektua (Bilbo-Balmaseda-Burgos 1832an egin zuen, Liverpool eta Manchesterren lehenengo trena egin baino bi urte lehenagokoa da.

Bilboko alkate izan zen, eta Gorteetako diputatu eta senadore. 1851n, *Defensa histórica, legislativa y económica del Señorío de Vizcaya y provincias de Alava y Guipúzcoa*, hiru probintzien foruen aldeko adierazpena argitaratu zuen.

(Iturria: [Wikipedia](#))

9.2. Argitalpenak



Hiztegitintzan [Diccionario etimológico del idioma bascongado](#) izeneko hiztegia egin zuen. Larramendiren hiztegia hartu zuen oinarri gisa, baina azalpenak, Aizkibelek *Euskeratik Erderara biurtzeko Itztegian* egin zuen bezala, euskaratik gaztelaniara eman zituen. Helburua, ordea, ez zuten biek berbera izan, Novia de Salcedok etimologiak aurkitu nahi baitzituen. Euskarazko hitzen zati txikienei (silabei, letrei...) esanahia eman nahi izan zien.

Txosten eta araudi asko idatzi zituen, adibidez: *Abusos de la Real Hacienda en las tres provincias bascongadas* eta goian aipatutako araudiak. (Wikipedia)

Lan hau egiteko Novia Salcedok Larramendiren lanean oinarritu zen askotan aipatzen du eta.

9.3. Euskeraren jatorriari egindako ekarpen batzuk

Aristides de Artiñanoren sarrera ezin hobeto azaltzen da Estatu honetan beti euskaldunen eta euskeraren kontra egon direla eta horregatik ez dute inoiz euskera baloratu eta baita gure naziorako zergatik den hain garrantzitsua euskeraren defentsa: “euskera desagertzen bada gure zuzenbide osoaren oinarria desagertuko da”.

Sean cuales fueren las causas, que no es hora de consignarlas, es el hecho desgraciadamente real y positivo, que los adversarios del país Basco-Navarro, no satisfechos con que hayamos perdido las ingénitas y legítimas libertades que poseíamos, anhelan ver desaparecer el hermoso idioma euskaro, que no entienden, y que juzgan, con razon, ser uno de los baluartes en que puede mantenerse la tradición y con ella el sentimiento y la aspiración á restaurar el alcázar foral. Y así como por espíritu de imitación toman todo lo que en el Estrangero es de moda, nuestros centralistas, en ódio á las instituciones peculiares de este País, lejos de seguir ese movimiento científico que se propaga en Alemania, Francia, Inglaterra y otros países por el estudio del bascuence, lo combaten cada día con más empeño, con decisión más franca cada vez. ¿Existe algún sábio español, fuera de los contadísimos, que todos conocemos, y ninguno de los que es enemigo de los Fueros, que consagre algunas horas á investigar el bascuence, estudiándolo y desentrañando cuestiones que con este idioma se relacionen? Pues sino lo hay, si solo debemos contar con nuestros propios recursos y fuerzas para sostener la lucha, ¿no estamos obligados á defender tenaz y heroicamente ese hermoso idioma peculiar de este suelo, y en el que nuestros padres se inspiraban al repeler las agresiones de tantas razas, como inútilmente trataron de sojuzgarnos? El bascuence es el testimonio más fehaciente de nuestras libertades: si desaparece habrémos rasgado el último documento en que se apoya todo nuestro derecho.

Es preciso, pues, sostenerlo á toda costa, propagarlo por todos los medios y restablecerlo allí donde se hayan apagado sus amorosos ecos; para ello agrúpense cuantos amen á su País, y creando Academias, estableciendo cátedras, fomentando la literatura euskara y estimulando su estudio por las Diputaciones, Municipios, Corporaciones y particulares se logrará que otra vez sea el bascuence el idioma en que nos entendamos todos, el solo que resuene en el hogar y el que uniéndonos en la grandiosa aspiración de recuperar el derecho perdido, nos dé fuerzas para esperar el día en que brille de nuevo el sol espléndido de los Fueros.

Etimologia proposamen asko zentzugabeak direla dirudi, beste batzuk zalantzazkoak baina batzuk interesgarriak izan daitezke:

- ABALDEKOAK: abae-aldekoa. abae arbola litzateke, lehenengo txabolak zuhaitzen abarrak aprobetxatuta egingo zirelako
- ABAR: abe-ar. ABE=arbola, AR=posesiboa, arbolaRENA
- ABE: hasieran arbola izan omen zen eta gero zutabea izendatzeko erabili zen. Bere osagaiak: A (indarra) + BE (behekoa) (behean indarrez)
- ABENDU: abe-endu. ABE=arbola, ENDU=geldirik egon
- AZIENDA: azi-en-da. AZI=hazia, EN=genitiboa HAZIAREN, DA=izan
- ADABAKIA: ada-ebakia. ADA=adarra, EBAKIA
- ADEMAN: aditu-eman, aditzera ematea
- ADUSTEA (kontzeptua): adi-ustea